

ELEBERRIA

# J E N D E

## SALLY ROONEY

# N O R M A L A



ALBERDANIA

ELEBERRIA

**J E N D E**  
**SALLY ROONEY**  
**N O R M A L A**



ALBERDANIA



JENDE NORMALA

*Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza  
izan du liburu honek.*

*Bitartean ibillico dira becatutic becatúra amilduaz;  
oraiñ pensamentu batean, gueroseago itz loyak gozotoro aditzean:  
oraiñ escuca, edo queñada batean, guero musu edo laztanetan:  
oraiñ ipui ciquiñac contatzen, guero dantzán,  
edo dantza ondoan alberdanian.*

J.B. AGIRRE

JATORRIZKO IZENBURUA: *Normal People*,

Faber and Faber argitaletxeak argitaratu zuen lehen aldiz.

*Liburu hau Literature Ireland-en laguntzaz argitaratu da.*



I. EDIZIOA: 2020ko azaroa.

© 2018, Sally Rooney

Eskubide guztiak erresalbatuta.

© Itzulpenarena: 2020, Irene Aldasoro

© Argitaraldi honena: 2020, **ALBERDANIA, SL**

Istillaga, 2, beheka C - 20304 Irun

Tel.: + 34 943 63 28 14

[alberdania@alberdania.net](mailto:alberdania@alberdania.net)

[www.alberdania.net](http://www.alberdania.net)

Azaleko irudia eta diseinua: Concetta Probanza

ISBN digitala: 978-84-9868-642-5

ISBN papera: 978-84-9868-641-8

Legezko gordailua: D. 1105/2020



# JENDE NORMALA

SALLY ROONEY

ITZULPENA

IRENE ALDASORO

**ALBERDANIA**

eleberria

*Konbertsio deitu izan zaion –egokiro deitu ere– jarrera-aldaketa mental horren sekretuetariko bat da ezen gutariko askorentzat ez zeruak ez lurrak ez dutela errebelaziorik harik eta halako nortasun batek eragin bereziz haienak ukitu eta irekitzera makurtzen dituen arte.*

GEORGE ELIOT, *Daniel Deronda*



Marianne atea zabaltzera irteten da Connellek txirrina jotzen duenean. Oraindik institutuko uniformearekin dago Marianne, baina jertsea kenduta, blusa eta gonarekin bakarrik, eta oinetakorik gabe, galtzerdi hutsetan.

A, hepa, esaten dio Connellek.

Sartu barrura.

Jiratu eta hallean aurrera abiatzen da Marianne. Connellek atzetik jarraitzen dio, sartutakoan atea itxi ondoren. Maila batzuk jaitsita, sukaldean, Connellen ama Lorraine gomazko eskularru pare bat erazten ari da. Mariannek, sukalde-gainera salto egin, eta kristalezko txokolate-krema pota hasitako bat hartzen du, zeinaren barruan utzia baitu koilaratxo bat.

Marianne esaten ari zitzaidan gaur jaso dituzula probazko azterketen emaitzak, esaten du Lorrainek.

Hizkuntza eta Literaturakoak eman dizkigute, esaten du Connellek. Horiek aparte ematen dituzte. Bukatzen joan nahi duzu?

Eskularruak txukun-txukun tolestu eta atzera harraskaren azpian uzten ditu Lorrainek. Orduan, ileko gantxoak kentzen hasten da. Hori autoan ere egin zezakeela iruditzen zaio Connelli.

Eta oso ondo joan omen zaizu, esaten dio Lorrainek.

Klaseko onena izan da, esaten du Mariannek.

Bueno, esaten du Connellek, Marianneri ere nahiko ondo joan zaio. Bagoaz?

Gelditu eta amantala askatzeari uzten dio Lorrainek.

Ez nekien presaka genbiltzanik, esaten du.

Connellek eskuak poltsikoetan sartu eta haserrezko hasperen bat itotzen du, baina arnasa ozen hartuz itotzen du, eta hasperena hasperen geratzen da.

Lehorgailutik karga bat atera behar dut salto batean, esaten du Lorrainek. Eta orduan joango gara. Bale?

Connellek ez du ezer esaten, burua makurtzen du Lorraine sukaldetik irteten denean.

Nahi duzu pixka bat honetatik?, esaten dio Mariannek.

Txokolate-kremaren potoa luzatzen dio. Connellek poltsikoetan beheraxeago bultzatzen ditu eskuak, bat-batean gorputz osoa poltsikoetan gorde nahian bezala.

Ez, eskerrik asko, esaten du.

Gaur jaso al dituzu Frantseseko emaitzak?

Atzo.

Bizkarra hozkailuaren kontra jarri eta Mariannek koilara nola miazkatzen duen begira geratzen da Connell. Institutuan, Mariannek eta biek elkar ezagutuko ez balute bezala egiten dute. Jendeak badaki Marianne mansio zuri sarbidedun hartan bizi dela eta Connellen ama garbitzailea dela, baina inork ez du ezagutzen bi errealitate horien arteko lotura berezia.

A1 atera dut, esaten du Connellek. Zuk zer atera duzu Alemanean?

A1, esaten dio Mariannek. Fardatzen ala?

Seihun puntu aterako dituzu, ez?

Mariannek sorbaldak jasotzen ditu. Zuk bai seguru asko, esaten dio.

Tira, zu ni baino azkarragoa zara.

Ez gaizki sentitu horregatik. Ni beste edonor baino azkarragoa naiz.

Mariannek irribarre zabal bat egiten du. Erreparorik gabeko mespretxu bat erabiltzen du institutuko jendearenganako. Ez du lagunik eta bazkalorduetan bakarrik egoten da, nobelak irakurtzen. Jende askok benetako gorrotoa dio. Hamahiru urte zituela hil zitzaion aita eta Connellek entzuna du buruko gaixotasunen bat edo zerbait duela. Egia da Marianne dela institutuko azkarrena. Connellek beldur dio harekin bakarrik geratzeari orain bezala, baina, bestalde, hura inpresionatzeko esan litzakeen gauzak irudikatzen harrapatzen du bere burua.

Hizkuntza eta Literaturan ez zara klaseko onena, ohartarazten dio Connellek.

Mariannek hortzak miazkatzen ditu, axolagabe.

Beharbada klase partikularrak eman beharko dizkidazu, Connell, esaten dio.

Belarriak berotzen sentitzen ditu Connellek. Mariannerena seguru asko berriketa hutsa izango da, ez iradokizuna, baina iradokizuna bada, Connell

asoziazioz beheratzeko izango da bakarrik, Marianne higuinarrizatzat baitauka jendeak. Zola lodiko zapata lau itsusi batzuk erabiltzen ditu eta ez da makillatzen. Batzuek esaten dute ez dituela zangoak depilatzen eta ezer. Behin Connellek entzun zuen Mariannek txokolatzeko izozkia gainera isuri zuela institutuko jantokian, eta nesken komunetara joan, blusa erantzi eta konketan garbitu zuela. Hari buruzko kontu ospetsu bat da hori, mundu guztiak entzun du. Nahi balu, espektakulu ederra muntatuko luke Mariannek Connelli institutuan kaixo esanda. Arratsaldera arte, esan liezaioke, denen aurrean. Dударik gabe posizio zailean utziko luke Connell, horrelakoak egiten disfrutatzeko baitu, antza, Mariannek. Baina hori ez du sekula egin.

Zertaz aritu zara gaur Neary andereñoarekin hizketan?, esaten dio Mariannek.

A, ezertaz ez. Ez dakit. Azterketez.

Mariannek jira eta buelta darabil koilaratxoa potoaren barruan.

Zurekin gustatuta dago, edo zer?, esaten dio Mariannek.

Koilaratxoa nola mugitzen duen begira geratzen zaio Connell. Belarriak bero-bero sentitzen ditu oraindik.

Zergatik esaten duzu hori?, galdetzen dio.

Jode, ez duzu harekin aferaren bat izango, ala?

Horixe ezetz. Uste duzu grazia duela horrekin txantxetan aritzeak?

Barkatu, esaten dio Mariannek.

Begirada zorrotz bat du Mariannek, Connellen begietatik sartu eta haren buruaren atzealdeari begira balegokio bezala.

Arrazoi duzu, ez du graziazirik, esaten dio. Barkatu.

Connellek baietz egiten du buruarekin, eta pixka batean gelaren ingurura begira egon eta baldosen arteko ildoan sartzen du oinetako-punta.

Batzuetan bai iruditzen zaidala arraro samar jokatzeko duela nirekin, esaten du. Baina ni ez nintzateke ibiliko hori jendeari esaten eta ezer.

Klasean ere iruditzen zait asko flirteatzen duela zurekin.

Hori uste duzu benetan?

Mariannek baietz egiten dio buruarekin. Connellek lepoa igurzten du. Neary andereñoak Ekonomia irakasten du. Connellek harenganako lituzkeen

sentimenduez asko hitz egiten da institutuan. Facebook-en gehitu nahi izan zuela ere esaten dute batzuek, baina ez zuen halakorik egin, ezta egingo ere. Izan ere, Connellek ez dio Neary andereñoari ezer egiten ez esaten, hantxe eserita egoten da isil-isilik, hark gauzak egiten eta esaten dizkion bitartean. Batzuetan klasearen ondoren geratzeko esaten dio, bizitzan hartuko duen norabideari buruz hitz egiteko, eta egia da behin institutuko gorbataren korapiloa ukitu ziola. Connellek ezin dio jendeari kontatu andereñoak nola jokatzeko duen, zeren, bestela, fardatzen ari dela pentsatuko bailukete. Klasean lotsatuegi eta gogaituegi egoten da ikasgaiak kontzentratu ahal izateko, hantxe egoten da begiak testuliburuan iltzatuta, harik eta grafikoak lausotzen hasten zaizkion arte.

Jendea beti esan eta esan aritzen zait harekin gustatuta nagoela eta ez dakit zer, esaten du Connellek. Baina ez nago, batere. Aizu, ez duzu pentsatuko nik jokoari jarraitzen diodala hark horrela jokatzeko duenean, ezta?

Nik neuk ez dut ikusi.

Connellek institutuko alkandoran igurzten ditu esku-ahurrak oharkabean. Denak hain daude konbentziturik Neary andereñoak erakartzen duela, ezen batzuetan bera ere duda egiten hasten baita. Eta zer, baldin eta bere pertzepzioaren gainetik edo azpitik, mailaren batean, egia balitz andereñoa desiratzen duela? Egia esan, desiratzea zer den ere ez daki. Bizitza errealean sexua izan duen bakoitzean oso estresagarria iruditu zaio, eta, ondorioz, desatsegina neurri handi batean; susmarazten dio berak okerren bat duela, ez dela gai emakumeekin harremanak izateko, nolabaiteko garapen-desgaitasunen bat duela. Gero hantxe etzanda geratzen da eta pentsatzen du: Hain nazkagarria iruditu zait, botagura sentitzen dut. Bera, izatez, horrelakoa delako ote da? Neary andereñoa mahaira makurtzen zaionean sentitzen duen botagura ote da berak kilika sexuala sentitzeko duen modua? Nola jakin?

Nahi baduzu, Lyons jaunarengana joango naiz, esaten dio Mariannek. Ez diot esango zuk ezer esan didazunik. Esango diot nik neuk ikusi dudala.

Ez, jode. Ezta pentsatu ere. Ez esan inori horri buruzko ezer, bale?

Bale, ondo da.

Connellek Marianneri begiratzen dio serio esaten duela berresteko, eta orduan baietz egiten du buruarekin.

Ez da zure errua hark zurekin horrela jokatzeko badu, esaten dio Mariannek. Zu ez zara ari ezer txarrik egiten.

Ahotsa apalduz, Connellek esaten du: Orduan beste guztiak zergatik pentsatzen dute harekin gustatuta nagoela?

Beharbada gorri-gorri jartzen zarelako hark hitz egiten dizunean. Baina, jakina, zu denagatik gorritzen zara, larruazala duzu halakoa, horixe da.

Connellek irribarre murriz triste bat egiten du. Eskerrik asko, esaten dio.

Egia da.

Bai, badakit.

Oraintxe ere gorritzen ari zara, esaten dio Mariannek.

Connellek begiak ixten ditu, mingaina ahosabaiaren kontra estutzen du. Barrez entzuten du Marianne.

Zergatik zara hain gogorra jendearekin?, galdetzen dio Connellek.

Ez naiz gogorra. Niri ez zait axola gorritzen bazara. Ez diot inori esango.

Jendeari ez esateak ez du esan nahi gogoak ematen dizuna esan dezakezunik.

Bale, esaten du Mariannek. Barkatu.

Jiratu eta leihotik lorategira begira jartzen da Connell. Lorategia baino gehiago etxe inguruko «eremuak» dira kanpoan ikusten diren haiek. Badago han tenis-pista bat eta harrizko estatua handi bat emakume-figurakoa. «Eremuetara» begira jarri eta kristalaren hats freskora hurbiltzen du aurpegia. Mariannek blusa konketan garbitu zuenekoak kontatzen duenean jendeak, gauza barregarri bat besterik ez balitz bezala kontatzen du, baina Connellek uste du beste bat dela kontakizunaren benetako asmoa. Marianne ez da inoiz ibili institutuko inorekin, inork ez du biluzik ikusi, inork ez daki neskak ala mutilak gustatzen zaizkion ere, ez dio inori esaten. Horrek ematen dio min jendeari, eta Connellek uste du horregatik kontatzen dutela istorio hori, ikustea galarazita duten zerbaiti aho-zabalik begiratzeko modu bat balitz bezala.

Ez dut ika-mikan hasi nahi zurekin, esaten dio Mariannek.

Ez gara ari ika-mikan.

Badakit seguru asko gorroto nauzula, baina zu zara hitz egiten didan bakarra.

Inoiz ez dut esan gorroto zaitudanik, esaten dio Connellek.

Horrek atentzioa ematen dio Marianneri, eta begiak goratzen ditu. Nahasturik, Connellek beste aldera begira jarraitzen du, baina begiaren ertzetik, ordea, Marianne begira dagokiola ikusten du. Mariannerekin hitz egiten duenean, bien artean erabateko pribatutasuna dagoen sentazioa izaten du. Beraren edozer gauza kontatu ahal izango lioke hari, baita gauza arraroak ere, eta Mariannek ez lizkioke inori esango, hori badaki. Harekin bakarrik egotea bizitza normaletik irteteko ate bat zabaltzea bezala da, eta irtendakoan ixtea. Mariannek ez dio beldurrik ematen; izatez, nahiko pertsona lasaia da Marianne, baina errezeloz ibiltzen da haren ondoan, bere burua modu nahasian jokatzeko ikusten baitu, normalean inoiz esango ez lituzkeen gauzak esaten.

Duela zenbait aste, hallean Lorraineren zain zegoen batean, Marianne eskaileretan behera etorri zen albornozean. Albornoz zuri arrunt bat zen, ohi den moduan lotua. Ilea bustia zuen Mariannek, eta aurpegiko krema eman berri balu bezalako distira hori larruazalean. Connell ikusi zuenean, Marianne zalantzan geratu zen eskaileretan eta esan zuen: Ez nekien hemen zeundenik, barkatu. Baliteke Marianne aztoratuta agertu izatea, baina ez modu esajeratuan eta ezer. Gero bere gelara igo zen atzera. Hark alde egin zuenean, Connell han geratu zen hallean zain. Bazekien Marianne seguru asko janzten arituko zela bere gelan, eta zirenak zirela behera jaistean soinean ekarriko zituen jantziak, bera hallean ikusi eta gero janzteko aukeratu zituenak izango zirela. Nolanahi ere, Marianne berriz agertu baino lehen prestatu zen Lorraine joateko eta Connell ez zein iritsi ikustera zer arropa jantzi zituen Mariannek. Tira, ez zitzaion ikaragarri ere axola jakitea. Eta, noski, institutuan inori ez zion kontatu hori, Marianne albornozean ikusi zuela, edo aztoratuta ematen zuela, inork ez zeukan zertan jakinik.

Ba, nik gogoko zaitut, esaten dio Mariannek.

Segundo batzuetan Connellek ez du hitzik esaten, eta elkarren arteko pribatutasunaren intentsitatea oso da bizia, presio ia fisiko batek hertsatzen

dizkio aurpegia eta gorputza. Orduan Lorraine sukaldera itzultzen da, bufanda lepoan lotuz. Kaska txiki bat jotzen du atean nahiz eta hura zabalik egon.

Joateko prest?, esaten du.

Bai, esaten du Connellek.

Eskerrik asko denagatik, Lorraine, esaten dio Mariannek. Datorren astera arte.

Connell sukaldeko atetik irtetera doalarik, amak esaten dio: Agur ere esan dezakezu, ba, ala? Burua jiratu eta sorbaldaren gainetik begiratzen du Connellek, baina konturatzen da ezin diola Marianneri begietara begiratu eta orduan zoruari zuzentzen zaio. Bueno, agur, esaten du. Eta ez da geratzen erantzunaren zain.

Autoan amak segurtasun-uhala lotu eta burua astintzen du. Izan zintezke pixka bat adeitsuagoa berarekin, esaten dio Connelli. Institutuan ere ez bide du batere ondo pasatzen horren kontura.

Giltza kontaktuan sartu eta atzerako ispiluari begi-kolpe bat ematen dio Connellek. Ni adeitsua naiz berarekin, esaten du.

Izan ere, oso pertsona sentibera da Marianne, esaten dio Lorrainek.

Hitz egin al dezakegu beste zerbaiti buruz?

Lorrainek musua okertzen du. Begiak haizetakoan iltzatu eta ez ikusiarena egiten du Connellek.

## Hiru aste geroago

(2011KO OTSAILA)

Marianne apain-mahaian eserita dago ispiluan aurpegiari begira. Haren aurpegiari zehaztasuna falta zaio masailen eta masailezurraren inguruan. Tresna teknologiko bat bezalako aurpegi bat da, eta haren bi begiak kurtsoreak dira, kliskaka. Edo zerbaitetan islaturiko ilargiaren gogoragarria, kordoka eta zehar. Dena batera adierazten du, eta hori ezer ez adieraztea bezala da. Okasio horretarako makillatuta joateak, erabakitzen du Mariannek, deseroso sentiaraziko luke. Bere buruari begirik kendu gabe, ezpainetako baltsamo garden baten potoan hatza sartu eta ezpainetan aplikatzen du.

Beheko solairuan, esekilekutik berokia hartzen duenean, Alan neba irteten zaio egongelatik.

Nora zoaz?, galdetzen dio hark.

Kanpora.

Kanpora nora?

Mariannek besoak berokiaren beso-zuloetan sartu eta lepoa egokitzen du. Urduritzen hasi da eta espero du bere isiltasunak ozarkeria adieraziko duela ezen ez zalantza.

Paseo bat ematera, besterik ez, esaten dio.

Alan atearen parean jartzen zaio.

Tira, badakit ez zoazela lagunak ikustera, esaten dio. Zuk ez duzulako lagunik, ala bai?

Ez, ez dut.

Oraingoan irribarre egiten du Mariannek, irribarre lasai bat, menekotasunkeinu horrek neba baretu eta atetik aldenduko duen itxaropenez. Horren ordeztan, nebak esaten dio: Zergatik egiten duzu hori?

Zer?, esaten dio Mariannek.

Egiten duzun irribarre arraro hori.

Nebak Marianneren aurpegia imitatzen du: irri oker itsusi bat, hortzak agerian. Irri zabal bat egiten badu ere, imitazioaren indarrak eta



muturrekotasunak haserre-itxura ematen diote.

Poztu egiten al zaitu lagunik ez izateak?, galdetzen dio Alanek

Ez.

Irribarre egiteari utzi gabe, Mariannek bi pauso txiki egiten ditu atzerantz, eta jiratu eta sukalde aldera joaten da, non baitago terrazako ate bat lorategira ematen duena. Alanek atzetik jarraitzen dio. Heltzen dio besotik eta tiradizo batez atetik apartatzen du. Masailezurra tenkatzen sentitzen du Mariannek. Nebaren hatzek besoa konprimatzen diote jakan barrena.

Amarengana negarrez joaten bazara honegatik, esaten dio Alanek.

Ez, esaten du Mariannek, ez. Paseo bat ematera irten behar dut orain. Eskerrik asko.

Jaregiten dio nebak eta Marianne terrazako atetik kanpora lerratzen da, eta irtendakoan atea ixten du. Kanpoan oso aire hotza dago eta hortzak karraska hasten zaizkio. Etxearen aldamentetik inguruka joan, sarbidean behera jarraitu eta kalera irteten da. Besoa zantz-zantz ari zaio nebak heldu dion lekuan. Poltsikotik telefonoa atera eta mezu bat idazten du, behin eta berriz tekla okerrari emanez, ezabatuz eta birtekleatuz. Azkenean, bidaltzen du: Banoa. Telefonoa gordetzerako, erantzuna jasotzen du: primeran gero arte.

Azken hiruhilekoaren amaieran, institutuko futbol-taldea lehiaketa bateko finalera iritsi zen eta ikasturteko guztiek azkeneko hiru klaseak huts egin behar izan zituzten taldea ikustera joateko. Mariannek inoiz ez zituen ikusi jokatzeko ordura arte. Ez zuen interesik kirolean eta gorputz-hezkuntzak antsietatea eragiten zion. Autobusean, partidarako bidean, entzungailuak jarrita zihoan, inork ez zion hitzik egiten. Leihotik kanpora: ganadu beltza, larre berdeak eta etxe zuriak teila marroiekin. Futbol-taldekoak denak elkarrekin zihoazen autobusaren goiko aldean, ura edanez eta elkarri bizkarrean zapladak emanez morala igotzeko. Mariannek sentsazioa izan zuen bere bizitza erreala handik oso urrun ari zela gertatzen, bera gabe, eta ez zekien iritsiko ote zen inoiz non zegoen jakitera eta haren parte izatera. Institutuan maiz izaten zuen sentipen hori, baina sentipenak ez zekarren berekin berariazko irudirik bizitza erreala nolakoa zen edo zer sentitzen zen erakusten zuenik. Zekien guztia zera zen, bizitza hori hasten zenean, ez zuela imajinatu beharrik izango.

Ateri egon zen partidaren denboran. Alboko marretan egoteko eta animatzeko eraman zituzten berak hara. Marianne ate-zutoinetatik hurbil zegoen, Karenekin eta beste neska batzuekin. Mariannek izan ezik, bazirudien beste guztiek buruz zekizkitela institutuko kantuak eta haien hitzak, berak lehenago inoiz entzun gabeak. Atsedenaldirian huts eta huts jarraitzen zuten, eta Keany andereñoak zuku-brickak eta barra energetikoak banatu zituen. Bigarren zatian zelai-aldaketa egin zen eta institutuko aurrelariak Marianne zegoen lekutik hurbil ari ziren jokatzeko. Connell Waldron zen erdiko aurrelaria. Han ikusten zuen Mariannek Connell bere futbol-jantzia, galtza motz zuri distiratsuak eta institutuko kamiseta, bizkarrean bederatzi zenbakiarekin. Oso planta ona zuen, beste zeinahi jokalarik baino askoz hobea. Pintzel batekin egindako marra luze dotore bat bezalakoa zen haren figura. Baloia haien zelai-eremura mugitzen zenean, Connell batera eta bestera korrika hasten zen eta batzuetan esku bat airera jasotzen zuen, eta gero berriz ere gelditu egiten zen. Atsegina zen hari begira egotea, eta Mariannek ez zuen uste hark bera non zegoen jakingo zuenik, ez axola izango zitzaionik. Egunen batean, institututik irten eta gero, begira egon zitzaiola esango zion, eta Connellek barre egingo zion eta neska arraroa zela esan.

Hirurogeita hamargarren minutuan, Aidan Kennedyk baloia ezkerretik gora eraman eta Connelli pasatu zion, eta hark penalti-arearen ertzetik jaurti, defendatzaileen buruen gainetik, eta sarearen hondo-hondora bidali zuen. Garrasi egin zuten denek, baita Mariannek ere, eta Karenek Marianneri gerritik heldu eta estu-estu egin zuen. Denak batera ari ziren animatzen, beren arteko harreman sozial ohikoak desegin zituen zerbait magikoa ikusi zuten. Keany andereñoa txistuka eta oinekin lurrari kolpeka ari zen. Zelaietan, berriz, aspaldian elkartu gabeko anaiak bezala besarkatu ziren Connell eta Aidan. Connell hain zen ederra. Marianneri bat-batean otu zitzaion oso gogoko izango zukeela hura norbaitekin sexua egiten ikustea; ez zuen zertan izan berarekin, edozeinekin izan zitekeen. Ederra zatekeen hari begira egote hutsa. Bazekien era horretako pentsamenduek bihurtzen zutela bera institutuko gainerako jendea ez bezalakoa, arraroagoa.

Badirudi Marianneren ikaskide guztiek gogoko dutela institutua eta normala iruditzen zaiela. Egunero uniforme bera janzte, denbora guztian arau arbitrarioak betetzea, portaera txarragatik zure zoko guztiak miatzea eta kontrolatzea, hori normala iruditzen zaie. Institutua ingurune hertsagarri bat den sentzaziorik ez dute. Iaz Mariannek liskarra izan zuen Historiako irakaslearekin, Kerrigan jaunarekin, hark leihotik begira harrapatu zuelako klasean, eta klaseko inor ez zen irten Marianneren alde. Zentzugabekeria hain nabarmena iruditzen zitzaion Marianneri goizero traje bat jantzi beharra eta egun guztian eraikin itzel batean artaldean bezala ibili beharra, eta batek eskubiderik ez izatea begiak nahi dituen aldera mugitzeko, norberaren begimugimenduak ere institutuko arauen jurisdikziopean egotea. Ez duzu ikasiko baldin eta leihotik begira ilargian bazaude, esan zion Kerrigan jaunak. Mariannek, ordurako bere onetik irtenda, zapla bota zion: Ez zaitetz engaina, ez dut zer ikasirik zuregandik.

Connellek berriki esan zion gogoan zuela gertaera hura, eta orduan iruditu zitzaiola gogorra izan zela Karrison jaunarekin, zeina irakasle zentzudunetariko bat baitzen, izan ere. Baina ulertzen dut zer esaten duzun, gehitu zuen Connellek. Institutuan gatibu antzean sentitzearena, hori ulertzen dut. Leihotik begiratzen utzi behar zizun, hori onartzen dut. Ez zinen ari ezer txarrik egiten.

Sukaldean izan zuten elkarrizketaren ondoren, Mariannek Connelli gogoko zuela esan zioneko hartatik, Connell sarriago etortzen hasi zen Marianneren etxera. Goiz iristen zen ama lanetik jasotzera eta egongelan hara-honaka itxaroten zuen hitz askorik gabe, edo tximiniaren ondoan zutik, eskuak poltsikoetan sartuta. Mariannek ez zion inoiz galdetzen zergatik etorri zen. Hitz batzuk egiten zituzten, edo Mariannek egiten zuen hitz eta Connellek buruarekin baietz. Connellek esan zion *Manifestu komunista* irakurri beharko zukeela, uste zuela gustatuko zitzaiola, eta, nahi bazuen, idatziko ziola izenburua, ahaztu ez zekion. Badakit nola esaten den *Manifestu komunista*, esan zion Mariannek. Connellek sorbaldak jaso zituen, bale. Handik pixka batera, irribarrez, erantsi zuen: Gehiago zarenaren itxura egin nahi duzu, baina, osea, ez duzu irakurri ere egin. Mariannek barre egin behar izan zuen orduan, eta

Connellek ere barre egin zuen hark egin zuelako. Ezin zioten elkarri begiratu barrez ari zirelarik, gelaren bazterretara begiratu behar zuten, edo nork bere oinetara.

Connellek ulertzen bide zuen zer sentitzen zuen Mariannek institutuaz; esan zion gogoko zuela haren iritziak entzutea. Entzuten dituzu nahikoa klasean, esan zion Mariannek. Connellek natural-natural erantzun zion: Klasean beste era batera jokatzeko duzu, zu ez zara benetan halakoa. Bazirudien Connellek uste zuela Mariannek zenbait izaera zituela irispidean, eta esfortzurik gabe pasatzen zela batetik bestera. Horrek harritu egiten zuen Marianne, bera nortasun bakar baten barruan konfinaturik sentitzen baitzen, beti bera, egiten zuena egiten zuela edo esaten zuena esaten zuela. Saiatu zen lehenago beste era batekoa izaten, esperimentu gisa edo, baina ez zuen funtzionatu. Connellekin diferentea bazen, diferentzia ez zegoen Marianneren barruan, Marianneren izaeran, elkarren artekoan baizik, dinamikan. Batzuetan barre eragiten zion Connelli, baina beste egun batzuetan Connell mutu egoten zen, sumaezin, eta hark alde egiten zuenean, Marianne airean bezala sentitzen zen, urduri, aldi berean energiaren beteta eta erabat hustuta.

Aurreko astean Connellek estudiora jarraitu zion Marianneri, hura *Sua, hurrengoan* liburuaren ale baten bila zebilelarik Connelli uzteko. Han geratu zen Connell liburu-apalak aztertzen, alkandoraren goiko botoia askatuta eta gorbata lasaituta. Aurkitu zuen Mariannek liburua eta Connelli pasatu zion, eta Connell leihoko eserlekuan eseri zen liburuaren atzeko azalari begira. Marianne ondoan eseri zitzaion eta galdetu zion ea haren lagun Ericek eta Robek ba al zekiten hainbeste irakurtzen zuenik institututik kanpo.

Haiei ez litzaizkieke interesatuko kontu hauek, esan zion Connellek.

Alegia, ez daudela interesatuta beren inguruko munduan.

Bere lagunak kritikatzeko zirenean beti jartzen zuen aurpegia jarri zuen Connellek: espresiorik gabeko bekozko bat. Ez modu berean, esan zuen Connellek. Haiek beren interesak dituzte. Ez dut uste arrazismoari eta horri guztiari buruzko libururik irakurriko dutenik.

Noski, okupatuegi daude sexua norekin egiten duten fardatzeko, esan zuen Mariannek.

Connell isilik geratu zen segundo batean, komentario hark belarriak zorrotzu balizkio bezala baina zehazki zer erantzun ez zekiela. Bai, badute horretatik pixka bat, esan zuen. Ez ditut defendituko, badakit amorragarriak gerta daitezkeela.

Eta horrek ez zaitu molestatzen?

Berriz ere isilik geratu zen Connell. Gehienetan ez, esan zuen. Egia da batzuetan marratik pasatzen direla pixka bat eta orduan molestatzen naute, jakina. Baina azkenean lagunak ditut, aizu. Zuretzat diferentea da.

Marianne begira geratu zitzaion, baina Connell liburuaren bizkarra aztertzen ari zen.

Zergatik da diferentea?, galdetu zion Mariannek.

Connellek sorbaldak jaso zituen, liburuaren azala atzera eta aurrera tolestuz. Marianne frustraturik sentitu zen. Aurpegia eta eskuak bero-bero zituen. Connellek liburuari begira jarraitzen zuen, nahiz eta dudarik gabe ordurako irakurria izan atzealdeko testua. Marianne modu mikroskopikoan doiturik zegoen Connellen gorputzaren presentziara, haren arnasaren mugimendu arruntak bera gaixotzeko adinako indarra balu bezala.

Zera, lehengo egunean esan zenuen gogoko ninduzula, esan zion Connellek. Sukaldean esan zenuen, institutuari buruz hizketan ari ginelarik.

Bai.

Lagun bezala esan nahi zenuen, edo zer?

Mariannek magalera beheratu zituen begiak. Panazko gona bat zuen eta, leihoko argitan, gelboz titakaturik zegoela ikusi zuen.

Ez, ez lagun bezala bakarrik, esan zuen.

A, bale. Ez nekien seguru.

Connell hantxe eserita geratu zen, bere arterako buruarekin baiezka.

Nik ez dakit oso ondo zer sentitzen dudan, gehitu zuen. Uste dut deserrosoa izango litzatekeela institutuan, gure artean zerbait gertatuko balitz.

Inork ez luke zertan jakinik.

Connellek Marianneri begiratu zion, begi-begietara, arreta guztiarekin. Mariannek bazekien musu ematera zihoakiola, eta horixe egin zuen Connellek. Ezpain leunak zituen. Mingaina ahoan sartu zion pixka bat. Eta gero, akabo,

Connell apartatu egin zen. Bazirudien eskuan zuen liburuaz gogoratu zela eta hari begiratzen hasi zen berriz ere.

Ondo egon da, esan zion Mariannek.

Connellek baietz egin zuen buruarekin, txistua irentsi eta beste behin ere liburura itzuli zituen begiak. Hain jarrera lotsatua zuen Connellek, atrebentzia izan balitz bezala Mariannek musuari erreferentzia egitea, ezen Marianne barrez hasi baitzen. Connell urduritu egin bide zen orduan.

Bueno, esan zuen. Zeri egiten diozu barre?

Ezeri ez.

Ematen du inoiz ez diozula inori musurik eman.

Ba, ez diot eman, esan zuen Mariannek.

Connellek aurpegia estali zuen eskuarekin. Marianne barrez hasi zen berriro, ezin zen gelditu, eta Connellek ere barreari eman zion. Belarriak gorri-gorri zituen eta burua astintzen zuen. Segundo batzuen buruan, zutitu egin zen, liburua eskuan zuela.

Ez joan hortik zehar institutuko jendeari hau kontatzen, bale?, esan zion Marianneri.

Institutuko norbaitekin hitz egingo banu bezala.

Connell gelatik irten zen. Ahulki, Marianne eserlekutik behera amildu zen, lurreraino, hankak aurrera luze-luze, trapuzko panpina bat bezala. Han eserita zegoelarik, Marianneren sentazioa izan zen bera probatzera etortzen zela Connell etxera, eta gainditu zuela proba, eta musu hura jakinarazpen bat izan zela, esaten ziona: Gainditu duzu. Gogoan zuen nolako barreak egin zituen Connellek berak esan zionean ez ziola inori musurik eman lehenago. Beste norbait izan balitz horrela barre egin zuena, krudela izango zen, baina Connellekin ez zen hala. Biek elkarrekin egin zuten barre, biak barruan harrapatu zituen eta biek partekatu zuten egoera baten aurrean, nahiz eta Mariannek ez zekien oso ondo nola deskribatu egoera hura, ez eta zer zuen barregarritik.

Hurrengo goizean, Alemaneko klasea baino lehen, ikaskideei begira egon zen Marianne, nola zebiltzan elkarri berogailuetatik kanpora bultzaka, iji-aja eta oihuka. Klasea hasi zenean, isilik entzun zuten audio-zinta bat, zeinean

emakume aleman batek hitz egiten baitzuen huts egin zuen festa bati buruz. *Es tut mir sehr leid.* Arratsaldean elurra hasi zuen, mataza gris lodiak, leiho paretik jira- biraka pasatu eta hartxintzarren gainean urtzen zirenak. Ikuspegi eta sentsazio oro sentsuala zen: ikasgeletako itxi-usaina, klaseen artean jotzen zuen interfonoko txirrin txikia, saskibaloiko pistaren inguruan agerpenak bezala ageri ziren arbola soil ilunak. Paper marradun zuri-urdin garbian zenbait koloretako boligrafoekin oharrak kopiatzeko errutinazko lan geldia. Connellek, ohi bezala, institutuan ez zion hitzik egin Marianneri, ezta begiratu ere. Mariannek ikasgelaren beste aldean ikusten zuen hura aditzak jokatzeko, boligrafo-muturrari hozka. Kafetegiko beste muturrean bazkalorduan, lagunekin zerbaitegatik irribarrez. Beren sekretuaren pisu atsegina sentitzen zuen Mariannek gorputzaren barruan, mugitzen zenean pelbisean presio egiten ziola.

Institututik irten ondoren ez zuen ikusi Connell egun hartan, ezta hurrengoan ere. Ostegun arratsaldean ere lan egiten zuen Connellen amak eta Connell goiz iritsi zen hura jasotzera. Mariannek irten behar izan zuen atera, beste inor ez baitzegoen etxean. Institutuko uniformeak aldatuta zetorren Connell, jeans beltzak eta kirol-jertsea soinean. Hura ikusi zuenean, korrika alde egin eta aurpegia estaltzeko bulkada izan zuen Mariannek. Lorraine sukaldean dago, esan zion. Eta jiratu eta eskaileretan gora joan zen bere logelara eta atea itxi zuen. Ahuspez etzan zen ohean, burkoaren kontra arnasa hartuz. Nor zen Connell hori azken batean? Oso intimoki ezagutzen zuela sentitzen zuen, baina zer arrazoi zuen hori sentitzeko? Behin musu eman ziolako bakarrik, inolako esplikaziorik gabe, eta gero inori ez esateko ohartarazi? Minutu bat edo beste pasatu eta gero, kaska bat entzun zuen logelako atean eta eseri egin zen. Aurrera, esan zuen. Connellek atea zabaltu zuen eta, Marianneri jakin-minezko begirada bat botaz ongi etorria ote zen ikusteko bezala, gelan sartu eta atea itxi zuen.

Kabreatuta zaude nirekin?, esan zion Connellek.

Ez. Zergatik egon behar dut kabreatuta?

Connellek sorbaldak jaso zituen. Nagi, oheraino hurbildu eta han eseri zen. Hankak gurutzatuta zegoen Marianne eserita, eskuekin orkatilei helduta. Pixka